



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko otsailaren 22a

15 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena. Aurkeztutako zuzenketa (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzekoa. Aurkeztutako zuzenketa (3. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketa (19. or.).

—Foru Lege proposamena, LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketa (25. or.).

—Foru Lege proposamena, LOGSEK jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketa (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

**Foru Lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jardue-
ra ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen
duena**

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duen Foru Lege proiektuari egin zaion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Proiektu hori 2001eko ekainaren 25eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Hauxe esan behar du:

Xedapen gehigarria

Hala etxebizitzaren eta ekohiriaren aldetik nola berrikuntza teknologikoarekin lotutako zerbitzu eta jardueren aldetik proiektua berritzailea denez, beheko solairua gehi beste bi dituzten etxebizitza guztiek igogailua izan beharko dute.

Zioak: Benetako irisgarritasuna izateko aukera ematea herritar guztiei.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irratikomunikazioko instalazioak antolatzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Foru Komunitatean irratikomunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL **PARLAMENTO DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

Lege honen xedea da uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarriko estazioak arautzea, eta zehazkiago, telefonia mugikorreko oinarriko estazioak –elementu erradiatzaileak, azpiegiturak eta transmisio-ekipoak zein ekipo osagarriak barne–, haiek Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean instalatzeko modua antolatu eta planifikatzeko, herritarren osasuna dela-eta aurre neurriak hartzeko eta hura zaintzeko eta, halaber, azpiegitura horiek ingurumenean, hirigintzan eta begirako ere duten eragina gutxitzeko.

Zioak: Kontzeptu nahiz lege aldetik zehaztasun handiagoa lortzea. Kable edo uhin gidarien bidez zirkulatzen ez duten uhinak erradiatzen dituztenez ari dela ulertu behar da.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. artikulua. Xedea.

Nafarroako Foru Komunitateak Osasun, Ingurumen eta Lurraldearen Antolamendu arloan dituen eskumenak baliatuta, lege honek xede du telekomunikazioetarako azpiegiturak arautzea, herritarren osasuna dela-eta aurre neurriak hartzeko eta hura zaintzeko eta, halaber, azpiegitura horien hedapen neurrigabeak ingurumenean, hirigintzan eta begirako ere izan dezakeen eragina gutxitzeko; lege honek orobat bilatzen du telekomunikazio zerbitzuentzako oinarri egokiak ezartzea, Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztien aukera berdintasunean eta lurraldearen garapenean laguntzeko beharrezkoa baita hori egitea.

Zioak: Egoki da nabarmentzea telekomunikazio zerbitzuak ezinbestekoak direla oinarriko beste zerbitzu batzuk eman eta garatzeko –hedabideak, segurtasuna, osasun laguntza, hezkuntza eta abar–. Horien ezarpenak, gainera, modu estrategikoan laguntzen du Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztien aukera berdintasunean eta lurraldearen garapenean sakontzen.

2. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikulua. Aplikazio eremua

1. Lege hau Nafarroako Foru Komunitatean instalatzen diren 0 Hz eta 300 GHz bitarteko frekuentziako uhin erradioelektrikoak sor ditzaketen erradiazio-sistemak dauzkaten irrati-komunikazio-etarako instalazio finko guztiei aplikatu behar zaie.

2. Ondokoak daude lege honen aplikazio eremutik kanpo:

Babes zibilerako, Nazioaren defentsarako, aireko nabigaziorako, segurtasun publikorako eta, oro har, gisa horretako edozein zerbitzutarako telekomunikazioko ekipo eta estazioak.

Zioak: Foru lege proposamenaren helburueta-ko bat herritarren osasuna babestea bada, ez da ulertzen irrati-zaleentzako instalazio gisa katalogatuta dauden 250 W bitarteko instalazioekiko tolerantzia (legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dira) eta, aldiz, legera makurtzera behar-zea modu ez jarraian emititzen duten beste sistema batzuk, aipatu potentzia baino askoz ere txikiagokoak izan arren (telefonía mugikorrerako eta erabiltzaileen talde itxietarako sistemak esaterako).

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

Lege hau Nafarroan instalatzen diren 0 Hz eta 300 GHz bitarteko frekuentziako uhin erradioelektrikoak sor ditzaketen uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarritzko estazio guztiei aplikatu behar zaie.

Zioak: Kontzeptu nahiz lege aldetik zehaztasun handiagoa lortzea. Kable edo uhin gidarien bidez zirkulatzen ez duten uhinak erradiatzen dituztenez ari dela ulertu behar da.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

5. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Foru lege honen xede diren oinarritzko estazioen parametro teknikoiei buruzko informazioaren gardentasuna sustatzea, eta uhin elektromagneti-

ko ez-ionizatzaileek gizakien gorputzean izan dezakeen eraginaren ezagutza zehatza zabaltzeko ikerkuntza zientifikoa.

Zioak: Gardentasuna beharrezkoa da herritarren lasaitasuna bermatzeko, eta ikerkuntza, berriz, oinarritzko garapen jasangarria lortzeko.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

2. Jardueren titularrek ondoko printzipioei jarraitu beharko diete:

a) Herritarren osasunaren babesa bermatzen ez duen edozein instalazio saihestea.

b) Ingurumenaren gaineko eraginei aurrea hartzea.

c) Nafarroako biztanle ahalik eta gehienei irrati-komunikazioko zerbitzuen estaldura ahalik eta handiena ematen saiatzea.

d) Azpiegiturak batera erabiltzea, teknikoki bideragarria bada, eta horrekin ingurumenaren eta paisaiaren gaineko eragina murrizten bada eta lege honek osasunaren babeserako ezarritako baldintzak betetzen badira.

Zioak: Ezinezkoa da foru lege honek ukitzen dituen zerbitzu guztiak nafar guztiei bermatzea.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: "Inguruko leku" eta "erabiltzen dituzten pertsonak" bezalako kontzeptu mugagabe eta interpretazio anitzekoak erabiltzeak segurtasun eza dakar inondik ere.

8. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

Foru lege honen xede diren instalazioek ezin izanen dituzte gainditu pertsonak eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteko erreferentzia-mailak. Maila hori irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuak mugatu zituen –horren bidez, jabari publiko erradioelektrikoa babesteko baldintzak, emisio erradioelektrikoen mugak eta emisio erradioelektrikoen aurrean osasuna babesteko neurriak ezartzen dituen erregelamendua onetsi zen–.

Halaber, erreferentzia-mailak gainditzen ahal diren eremuetan langile ez profesionalak sartzeko mugei buruz aipatu errege dekretuan ezarritako neurriak bete behar dituzte.

Zioak: Parametro onargarrietara egokitzea erreferentzia-mailak, zuhurtziaren printzipioa babestuz zerbitzua eragotzi gabe eta egoera kontraesankorrak sortu gabe, esaterako terminala-ko esposizioa handiagoa izatea.

9. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

“Definizioa” hitzaren ordean ondokoa jartzea:

Ondotik definitzen diren arretazko erabilerako lekuetan, 400 Megahertzio eta 2 Gigahertzio bitarteko frekuentzia espektroari aplikatzekoa zaion potentzia dentsitateko erreferentzia-maila erdira jaitzita aplikatu behar da, ahal izatera areago aplikatzeko zuhurtziaren printzipioa.

Zioak: Herritarren lasaitasunerako, zuhurtziaren printzipioa bultzatzea arretazko erabilerako lekuetan, non pertsonak gehien egoten diren, baina zerbitzua eragotzi eta lege honen espirituari kontrajartzen zaizkion egoerak sortzen dituzte gehiegizko mugak ezarri gabe.

10. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

Hala ere, arau hauetan ezarritako mailak bete ondoren ere, irrati-komunikazioko instalazioen inguruko lekuetan bizi diren edo leku horiek erabiltzen dituzten pertsonak alegatuz gero instalazio horiekin zerikusirik izan lezakeen sintomaren bat, Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak osasun ikerketa bat egin beharko du bere kabuz horri buruz, instalazio horien jarduerak eskatzaileen osasunean izan lezaketen eragina zehazteko.

Ikerketaren ondorioz ikusten bada eragin hori gertatzeko probabilitatea nabarmena dela, lege arloko neurriak hartuko dira, erradiazio-iturriak moteltzetik horiek kentzeraino.

Zioak: Ez dira sintomatologiak alegatzen dituztenak oinarrizko estazioen eragina ezarri behar dutenak, baizik eta Nafarroako Osasun Publikoaren Institutua. Auziari zehaztasunez ekin behar zaio.

11. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

5.2. Definizioak.

Ondokoak izanen dira arretazko erabilerako lekuak:

a) Ikastetxeak, osasun-etxeak, ospitaleak eta parke publikoak.

Zioak: Artikulu horrek segurtasun eta zehaztasun eza sortzen du Nafarroako Foru Komunitateko herritarrentzako irrati-komunikazioko zerbitzuen sarea planifikatzerakoan.

12. ZUZENKETA**BATASUNA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluari, 2. eta 3. idatz-zatien artean, idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Arau orokor gisa, debekatuta dago antena errepikatzaileak eta telefonia mugikorrek oinarritzko estazioak instalatzea arretazko erabilerako lekuetan, hala herriguneetan nola landaguneetan, eta xede horretarako azpiegitura berariazkoa izanen da.

Zioak: Nazioarteko erkidego zientifikoak ez du oraindik zehatz-mehatz eta ezberrik gabe egiazta-erradiazio ez-ionizatzaileek luzaroan haien eraginpean dauden pertsonengan zer eragin izan dezaket. Antza denez, OMEk egindako azterlan

baten emaitzak 2005ean emanen dira argitara, eta hartan behin betiko ondorioak ezagutaraziko dira. Bitartean, orain arte dakiguna da pertsonen osasunerako ondorio kaltegarriak antzeman direla telefonia mugikorreko instalazioetatik gertu bizi direnen artean. Telefonia mugikorreko oinarritzko estazioen ukipen perimetroan edo gertu bizi direnek sarriago agertzen dituzte buruko mina, lo eza, azaleko narritadurak, gaixotasun larriak (hainbat minbizi mota) eta bestelako patologiak.

Irizpide teknikoaren arabera, ezin da bermatu telefonia mugikorreko oinarritzko estazio batek (TMOE) jaulkitzen dituen erradiazio ez-ionizatzaileek sortzen duten "aterki" barruan egunean sei ordutik goiti egoten direnentzat 0,1 mW/cm²-ko gehieneko inmisioa. Hori dela-eta, zuzenketa honen eta beste batzuen bidez proposatzen den konponbide teknikoak bilatzen du TMOEak herri-gune eta landaguneetatik kanpo jartzea, horretarako propio jarritako azpiegitura berariazkoetan, bermatzearen arretazko erabilerako lekuetan ez duela inork inolaz ere jasoko 0,1 mW/cm²-ko inmisioa baino handiagoa.

Iritzia eskatu zaien aditu batzuek diotenez, bateragarriak dira, inolako arazorik gabe, baldintza horiek eta operadoreek kalitate handiko telefonia mugikorreko zerbitzua ematea.

Horregatik eman behar dira honetan horri buruzko arauak, zuzentzia irizpideei jarraituz, gertakari horrek giza osasunerako kaltegarria dela baitakigu.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluar idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak ikerketa epidemiologiko bat hasiko du Nafarroako Foru Komunitatean datu egiaztatuak izateko eta horien bidez zehaztasun handiagoarekin ezarri ahal izateko, ebidentzia zientifikoaren argitan, zein diren epe ertain eta luzera foru lege honek xedatutako esposizio muga handiago edo txikiagoak.

Artikulu honetan azaltzen diren helburuak lortzeko, lankidetzaren hitzarmenak ezarri ahalko dira auzi honekin zerikusia duten arlo zientifiko eta teknikoak ikertzen dituzten erakunde publikoekin, eta lankidetzan aritu ahalko da Zientzia eta Teknologia Ministerioarekin nahiz Osasun Ministerioarekin, lortutako datuak osatu eta egiaztatzeko.

Telefonia mugikor automatikoko zerbitzuak hartzen dituzten enpresak ikerketa horietan laguntza ematera behartuta egonen dira.

Zioak: Azterketa epidemiologiko zuzen bat ez da egin behar bakarrik arrisku gehien duten herri-tarrek, ezpada arrisku gutxien dutenekin ere; horrela egin ezean, albo batera gera litezke oinarritzko estazioen dentsitate handi edo txikiagoarekin zerikusia duten aldagaiak, eta zientziak ezin izanen luke inongo kausarik zehaztu.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko lehen lerrokada kentzeko zuzenketa

Zioak: Gehiegikeria litzateke debeku orokor bat ezartzea, hurrengo lerrokadan mugak jartzen direla kontuan hartuta. Ez da ahaztu behar telefonia mugikor automatikoko zerbitzuak, zenbaitetan, bizitzak salbatzeko balio duela, eta ezin da horien estaldura besterik gabe mugatu.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko hirugarren lerrokada kentzeko zuzenketa

Zioak: Gehiegikeria ematen du. Ez da beharrezkoa lege proposamenak ezartzen dituen mugez haratago joatea, babes-tartea oso zabala baita.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko bigarren lerrokadan, gaztelaniazko testuan, "citada" hitza kentzea

Zioak: Gure taldeak horren aurreko lerrokadari aurkeztutako beste zuzenketa batekin bat.

17. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko laugarren lerrokadan "baita" jarzen duenetik aurrerakoa kentzeko zuzenketa

Zioak: Argitasun eta segurtasun juridikoagatik. Ez da ezartzen zer instalazio mota debeka daitezkeen, ezta zein irizpideri jarraikiz ere.

18. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluko 1. lerrokada aldatzeko zuzenketa

Oro har, berariazko arauak ezertan kendu gabe, ezin izanen da irrati-komunikazioko instalaziorik ezarri Ondare Historikoari buruzko Legeak monumentu gisa aitorturiko interes kulturalako ondare higiezinaren inguruetan, ez eta Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Legean erreserba integral, natur erreserba eta lekune natural moduan sailkaturiko naturgune babestuetan ere.

Salbuespenak salbuespen, Nafarroako Gobernu departamentu eskudunak arestian adierazitako lekuetan instalazio erradioelektrikoak jartzeko baimena eman ahalko du, baldin eta hala jokatzeko arrazoiak badaude.

Zioak: Nafarroako lekune natural horietako batean halako instalazioak ezartzeak ekar lezakeen arriskua ekiditearren aurkeztu dugu zuzenketa hau. Egia da lege proposamenak, alde batetik, mugak jartzen dizkiola gisa horretako instalazioak erreserba integral edo natur erreserba ez diren naturguneetan jartzeari, eta, beste alde batetik, Nafarroako lekune natural gehienak (ibarbakoak) ez direla gisa horretako instalazioak jartzeko lekurik aproposenak, eta halatan, hobe da debekuak dakarren segurtasun juridiko handiagoa ematea lekune naturalei.

**7. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****19. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua aldatzeko zuzenketa

7. artikulua. Kontserbazioa eta berrikusketa

Operadoreek behar diren segurtasun, egonkortasun eta kontserbazio egoeran mantendu beharko dituzte instalazioak.

Nafarroako Foru Komunitateak osasun, ingurumen eta lurraldearen antolamendu arloko helburuak eta xede berekiak betetzen dituela bermatzearen, operadoreek mantendu eta aldian-aldian berrikusi beharko dituzte instalazioak, gai horretako administrazio eskudunak ezarritako prozedura eta protokolo teknikoekin bat.

Urtean behin gutxienez, betebeharrak horren kreditazioa jakinarazi beharko diote Nafarroako Gobernu departamentu eskudunari. Horretarako, administrazio eskuduneari aurkeztutako dokumentazioaren kopia eta tramitazioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Instalazioen titularrek nahitaez konpondu beharko dituzte kontserbazio arazoak, irregularitasunaren jakinarazpena jaso eta gehienez ere hila-beteko epean. Pertsona nahiz ondasunetarako arrisku egoerarik egonez gero, berehala hartu beharko dira neurriak.

Jarduera behin betiko utzi edo instalazioan erabiltzen ez den elementurik egonez gero, operadoreak, edo kasua bada instalazioen jabeak, behar direnak eginen ditu irrati-komunikazioko ekipoa edo haien elementuak kendu eta erretiratzeke, eta instalazio hori kokatuta dagoen zoria edo eraikina instalazioak jarri aurretik zegoen bezala utzi beharko du.

Zioak: Konponketa zailtasun tekniko berezikoa bada, 15 eguneko epea motzegia gerta daiteke kontserbazio arazoak konpontzeko. Pertsona nahiz ondasunetarako arrisku egoerarik egonez gero, bermatuta dago konponketa berehala eginen dela.

**III. TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****20. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

III. titulua aldatzeko zuzenketa

III. titulua
Azpiegiturei buruzko lurralde plana

Zioak: Foru Komunitatearen eskumenei hobeki lotzen zaien titulua proposatzen dugu.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa

Irrati-komunikazioko operadoreek Azpiegiturei buruzko lurralde plan bat aurkeztu beharko dute, non gaur egun dauden estazio finkoak eta sare osoa ezarri eta garatzeko dauden aurreikuspenak azalduko diren.

Plan horrek behar den informazio guztia eman du instalazio horiek lurraldearen antolamenduan integratzeko eta lege honetan ezarritako mugak beteko direla bermatzeko.

Foru Komunitatean hedatu nahi diren operadoreek, gainera, Foru Komunitatean irrati-komunikazioko lehen instalazioa ezarri baino lehen, Nafarroako Foru Komunitaterako azpiegiturei buruzko lurralde plana aurkeztu beharko dute.

Zioak: Irrati-komunikazioko operadore esamoldea ez dator bat arestian aipatutako definizioekin, eta hortaz, egokiena litzateke operadore terminoa erabiltzea adierazteko hala azken zerbitzuen operadorea nola azpiegitura eta sare operadorea.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa

10. artikulua. Azpiegiturei buruzko lurralde planaren osagaiak.

Irrati-komunikazioko operadoreek Foru Administrazioari behar adina informazio emanen diote dagoen sareari buruz eta urtebeterako, gutxienez ere, lurralde sarea garatzeko ezarri nahi diren instalazio berriei buruz. Honakoak jaso beharko ditu informazio horrek:

1) Oro har

- Garatu nahi den azpiegitura sarea garatzeko lizentzia edo titulu gaitasun-emailea, administrazio eskudunak emana.

- Instalazio berriak jartzeko programa eta egutegia.

- Enpresa garapenaren nahiz lehiatzeko gaitasunaren gaineko eragina, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde nahiz gizarte kohesioaren hobekuntzaren gainekoa ere.

- Erantzukizun zibileko aseguru bat, aurreikusitako jarduerak hirugarrenenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko beharra jasotzen duena.

Eta, informatzeko baino ez bada ere, ondokoak ere bai:

- Emandako zerbitzuei eta erabilitako teknologiei buruzko azalpena.

- Informazio teknikoa eta sarearen eskema orokorra.

2) Kokapen bakoitzari buruzko fitxa bat ere eginen da, ondoko datuekin gutxienez ere:

- Lekuaren kokapena, sarbideak eta hornidurak.

- Zoruaren hirigintza-kalifikazioa, ingurumen-afekzioak eta ondare historiko eta artistikorako afekzioak.

- Batera erabiltzeko aukera.

- Proposaturiko konponbide teknikoaren justifikazioa. Hartan ondokoak zehaztuko dira: antenei eusteko osagaiak edo mastak zer arkitektura elementuren gainean jar daitezkeen, atzera eramateko, seinaleztatzeko nahiz hesiz ixteko neurriak, bide publikotik begi-inpaktua gutxitzeko neurriak eta ingurunean mimetizatze neurriak.

- Kokalekutik gertuen dagoen lurraldearen erabilere nahiz jarduerari eta lurraldeari berari buruzko azalpena.

- Kota altimetrikoa planoetan berariaz adierazita.

Instalazio bakoitza funtzionatzen hasi aurretik emanen da informazio hori, eta orduan bertan justifikatuko da nola lotzen diren instalazioaren kokapena eta hedapenari buruzko lurralde-plana. Instalazioaren kokapena planari egokitzen ez bazaio, gaurkotu egin beharko da plana lehendabizi.

3) Informatzeko baino ez bada ere, irrati-komunikazio zerbitzu bakoitzerako fitxa bat ere eginen da, ondoko datuekin gutxienez ere:

- Kasuko irrati-komunikazioko zerbitzua emateko lizentzia edo titulu gaitasun-emailea, administrazio eskudunak emana.

- Instalazioak funtzionatzeko baimena, arloko organo eskudunak emana.

- Irrati-sistemaren antenen altuera.
- Estaldurak hartzen dituen eremuak.
- Frekuentzien tartea eta emisioaren potentzia.
- Instalazioaren emisio elektromagnetikoari buruzko informazioak:

a) Emisioa handiena den iristeko moduko lekuan.

b) Arretazko erabilerako emisio handieneko hiru lekuetan.

Zerbitzu bakoitza funtzionatzen hasi aurretik emanen da informazio hori, eta orduan bertan justifikatuko da nola lotzen diren zerbitzua eta instalazioei buruzko lurralde-plana. Zerbitzua planari egokitzen ez bazaio, gaurkotu egin beharko da plana lehendabizi.

Informazio grafikoak kokapenak adierazi beharko ditu, UTM koordenadak erabiliz eta ondo kartografiaren bitartez:

a) 1:25.000 eskala, hiri eremua ez den batean dauden instalazioetarako.

b) 1:2.000 eskala, hiri eremuan dauden instalazioetarako.

c) 1:200 eskalako planoak, inguruko eraikinen kokapena adierazita.

Nafarroako Gobernuko organo eskudunak beste eskala batzuk onartu ahaliko ditu, baldin eta argi eta garbi zehazten bada instalazioaren kokapena eta ingurunearekin duen erlazioa.

Operadoreek espresuki adieraziko dute eman duten informaziotik legeria indardunaren babesean isilik gordetzekoa zein den.

Artikulu honetako 1, 2 eta 3. idatz-zatietan ezarritakoari jarraikiz emandako informazioak euskarri grafikoan ez ezik euskarri informatikoan ere emanen da –euskarri estandarrean edo, hala ezarri gero, Nafarroako Gobernuko organo eskudunak ezartzen duen euskarri–.

Beti ere, artikulu honetan eskatzen diren datuak gaurkotu ahal izanen ditu Nafarroako Gobernuak, legea erregelamendu bidez garatzen.

Zioak: Eskatutako informaziorik gehien-gehiena telekomunikazioetako instalazio bati buruzko exekuzio proiektu batekoa da hedapen plan batekoa bainoago.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

23. ZUZENKETA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa

11. artikulua. Eskumenak.

Foru lege honek ezartzen dituen eskumenak baliatzean Foru Administrazioiko departamentuen esku-hartzea foru dekretu bidez xedatuko du Nafarroako Gobernuak.

Zioak: Nafarroako Gobernuari dagokio, Gobernuari buruzko Foru Legeak definitutako parametroen arabera, Foru Administrazioaren egitura organikoa zehazteko eskumena.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

24. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa

12. artikulua. Azpiegiturei buruzko lurralde plana onestea.

1. Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak onetsiko ditu Nafarroako Foru Komunitateko azpiegiturei buruzko lurralde planak.

Lurzoru ez urbanizagarrian kokatzen diren instalazioak ere Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak onetsiko ditu.

Hiri lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian kokatzen diren instalazioen kasuan udalek emanen dituzte kasuan kasuko lizentziak.

Foru Administrazioak azpiegiturei buruzko lurralde plana onestea ezinbesteko baldintza izanen da udalek hirietan kokatutako instalazioak ezartzeko behar diren lizentziak eman ditzaten.

Udalen batek lizentziarik ematen badu planaren alde aurretiko administrazio-onespena eduki gabe, lizentzia hori zuzenbidez deuseza izanen da.

Plana onesteko egintza Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baina operadore interesdunari ere jakinaraziko zaio.

3. Instalazioak onartzeko irizpide orokorra arretazko erabilerako eremuetako esposizioa gutxitzeko planteatzen den justifikazio teknikoak

izanen da; horretarako, kontuan hartu beharko da ordurako hedatuta dagoen sarea eta hedatzeko dagoena, eta, betiere, emisioak 1, 2, 3 eta 4. eranskinetan ezarritako mugak errespetatu beharko dituzte.

Zioak: Erregelamendu bidez arautu behar da teknika legegile bidezko tramitazio prozedura.

25. ZUZENKETA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa

3. idatz-zatian "emisioak 1, 2.." jartzen duenetik aurrerakoa aldatu eta ondokoa jartzea: "Foru lege honetako 5. artikuluan ezarritako mugak errespetatu beharko dituzte."

Zioak: Gure taldeak aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa

13. artikulua. Azpiegiturei buruzko lurralde plana gaurkotu eta aldatzea.

Operadoreek, kasua bada, aurkezturiko planaren edukiaren gaineko aldaketa guztiak jakinarazi beharko dizkiote Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunari, planaren gaurkotzearen bidez.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatutako nomenklaturari egokitzea.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

27. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa

14. artikulua. Azpiegituren baterako erabilera

Kontseiluaren 1997ko ekainaren 30eko 97/33/CE Zuzentaraua eta Telekomunikazioei buruzko apirilaren 24ko 11/1998 Lege Orokorreko 16.3 artikulua garatzearen, telekomunikazioetako azpiegituren baterako erabilera dela-eta, erregela-

mendu bidez arautuko da irrati-komunikazioko estazioen azpiegiturak lurzoru ez urbanizagarrian batera erabiltzeko prozedura, horiek ingurumenean duten eragina gutxitzeko.

Garatzen den prozeduran bermatuko da enpresa operadoreek baldintza berberak izanen dituztela instalazioen kokapen berri guztietan, epe bat ezarriko baita azpiegiturak batera erabiltzeko interesa dutela adierazteko, eta orobat bermatuko da lehiatzeko gaitasuna zeharo garatuko dela eta operadoreek sareak hedatzea objektibotasunez eta diskriminaziorik gabe egingen dela, Telekomunikazioei buruzko apirilaren 24ko 11/1998 Lege Orokorrak aurreikusi bezala.

Betiere, lurzoru ez-urbanizagarria zein hiri lurzoru edo/eta lurzoru urbanizagarria batera erabiltzea bideragarria izanen da baldin eta instalazio guztien eraginen baturak lege honek agindutako atalaseak gainditzen ez baditu.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatutako nomenklaturari egokitzea.

15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

28. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hauxe dio: "Arau bidez gomendatuko dira neurketa eta kalkulu metodo egokiak, eta Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuari emanen zaio haiek arlo honetako bilakaera teknologikoari jarraituz gainbegiratu eta egunean jartzeko ardurara."

Eta hauxe proposatzen dugu: "Erregelamendu bidez gomendatuko dira neurketa eta kalkulu metodo egokiak, arlo horretan gaitasuna aitortua duten entitateek homologatutako metodoekin bat etorritik. Zientzia eta Teknologia Ministerioaren urtarilaren 11ko CTE/23/2002 Aginduan jasotzen diren euskarriekin bat etorritik aurkeztu beharko dira emaitzak –agindu horren bidez, irrati-komunikazioko zerbitzu operadoreek ziurtagiri eta azterlan jakin batzuk aurkezteko baldintzak ezarri ziren–.

Zioak: Nazio mailako legeriarekiko koherentzia eta harmonia gordetzea.

29. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa

“1, 2, 3 eta 4. eranskinetan” kendu eta “Foru lege honetako 5. artikuluan” jarri.

Zioak: Gure taldeak aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat.

**18. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****30. ZUZENKETA**

18. artikulua aldatzeko zuzenketa

“Sarearen hedapenari buruzko lurralde plana” jartzen duen lekuan “Azpiegiturei buruzko lurralde plana”.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatutako nomenklaturari egokitzea.

**19. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****31. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. idatz-zatia kentzea

3. Instalazioak kontserbatu eta errebisatzeari buruz 7. artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzea.

4. idatz-zatian ezarritako epea hilabetera luzatzea.

Zioak: Egokitzapen tekniko batzuek, ekipoak hornitzeko arrazoiak direla-eta, 15 egun baino gehiago behar dute. Pertsonentzako arriskua dagoenetan, bermatuta dago berehalakotasuna.

**20. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****32. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

20 artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

1. Azpiegiturei buruz onetsitako lurralde planetan jaso gabeko instalazioak eraikitzea.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatutako nomenklaturari egokitzea.

33. ZUZENKETA**BATASUNA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

3. Foru lege honetan ezarritakoari aurreikusitako epean egokitzeko modurik ez duten instalazioak, eta hortaz zaharkituta daudenak, ez eraistea.

Zioak: Gure taldeak aurkeztutako hainbat zuzenketaren ondorioz, egungo instalazio batzuek ez dute foru lege proposamenean xedatutakoari egokitzeko inolako modurik.

Hartara, kontuan hartuta arau-hausteen gehikortasun-printzipioa, ematen du logikoa dela foru lege proposamenean arau-hauste larritzat jotzen bada “instalazioak egokitzeko epea ez betetzea” arau-hauste oso larritzat jotzea “foru lege honetan ezarritakoari aurreikusitako epean egokitzeko modurik ez duten instalazioak, eta hortaz zaharkituta daudenak, ez eraistea”.

**21. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****34. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikulua aldatzeko zuzenketa

21. artikulua. Zehapen administratiboak

Ondoko zehapenak ezarri ahal izanen dira arau-hauste administratiboengatik:

A. Arau-hauste arinak:

a) Ohartarazpena.

b) 30.000 euro bitarteko isuna.

c) Isun zehapen txikiena 3.000 euro bitartekoa izanen da; isun ertaina 3.001 eta 18.000 euro bitartekoa izanen da, eta isun handiena 18.001 eta 30.000 euro bitartekoa izanen da.

B. Arau-hauste larriak:

a) 30.001 eta 120.000 euro bitarteko isuna.

b) Isun zehapen txikiena 72.000 euro bitartekoa izanen da; isun ertaina 72.001 eta 96.000 euro bitartekoa izanen da, eta isun handiena 96.001 eta 120.000 euro bitartekoa izanen da.

c) Hiru hilabete bitarteko gabetzea; epe hori luzatu ahal izanen da zehapena ekarri zuen arau-haustea zuzentzeko beharrezkoa bada.

C. Arau-hauste oso larriak.

a) 120.001 eta 240.000 euro bitarteko isuna.

b) Isun zehapen txikiena 168.000 euro bitartekoa izanen da; isun ertaina 168.001 eta 204.000 euro bitartekoa izanen da, eta isun handiena 204.001 eta 240.000 euro bitartekoa izanen da.

c) Sei hilabete bitarteko gabetzea; epe hori luzatu ahal izanen da zehapena ekarri zuen arau-haustea zuzentzeko beharrezkoa bada.

Isun zehapena eta gabetzea bateragarriak izanen dira.

Zehapenak ezartzeko organo eskudunek zehapenaren kopuruaren gainetiko ehuneko hamarreko hertsapen isunak ezarri ahal izanen dituzte jarduera eteteko ebazpena bete gabe iragandako egun bakoitzeko.

Zioak: Zenbatekoak eurotan ematea eta arau-hauste oso larriengatik zehapenak igotzea, proportzionaltasun irizpideari eutsiz.

24. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

35. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua aldatzeko zuzenketa

24. artikulua. Subjektu erantzuleak

Lege honek ezarritako arau-hausteen administrazio erantzukizuna ondokoena izanen da:

a) Titulu gaitasun-emailearen titularrarena.

b) Titulu gaitasun-emailea izan gabe telekomunikazio sareak paratu eta ustiatzean nahiz zerbitzuak ematean egindako arau-hausteetan, jarduera burutzen duen pertsona fisiko edo juridikoarena edo, subsidiarioki, zuzenbidean balioduna den edozein titulu juridikoren bidez –nahiz halakorik izan gabe– instalazioak eta ekipoak erabiltzeko modua duenarena.

c) Telekomunikazioei buruzko legerian araututako jarduerak burutzen dituzten pertsona eta erabiltzaileek –honen aurreko letretan sartzen ez direnak– egindako arau-hausteetan, hautsiriko aginduan tipifikatutako jarduera burutu duen pertsona fisiko edo juridikoarena edo kasuan kasuko arauak espresuki erantzukizuna eratzikitzen diotenarena.

Zioak: Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko 77. artikuluan xedatuari egokitzea.

27. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

36. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

27. artikulua aldatzeko zuzenketa

27. artikulua. Preskripzioa.

Arau-hausteen preskripzio epeak Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoak izanen dira.

Zioak: : Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko 83. artikuluan xedatuari egokitzea, arloko legeria oinarritzkoarekin harmonizatzearen.

37. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa

Artikulua. Definizioak.

1. Operadorea. Zerbitzu emailea. Kontzeptu horren barruan ondokoak sartu behar dira:

a) IRRATI-KOMUNIKAZIOKO AZKEN ZERBITZUEN OPERADOREA: halakorik eskatzen bada, beharrezko titulu gaitasun-emailea izaki azken erabiltzaileari zerbitzu ematen dioten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

b) IRRATI-KOMUNIKAZIOKO SAREEN ETA AZPIEGITUREN OPERADOREA: erabiltzaileen-azken zerbitzua emateko gaitasunik izan gabe, honen aurreko letran definitutako operadorei azken zerbitzu horiek emateko beharrezkoak diren sare, ekipo edo/eta azpiegiturak ematen dizkietenak. (Irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuko 12. artikulua).

Oharra: Foru lege proposamen honetan "operadore" terminoa erabiltzen den guztietan, bi kategoria horiek sartzen direla ulertu behar da.

2. TELEKOMUNIKAZIOA: Hari, irrati-elektzitate, bitarteko optiko edo beste sistema elektromagnetikoren bidezko edozein motatako informazio, soinu, irudi, idatzi, seinale edo zeinuren transmisio, emisio edo jasotze oro, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko definizioari jarraikiz.

3. IRRATI-KOMUNIKAZIOA: Uhin erradioelektriko bidez transmititutako telekomunikazio oro, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko definizioari jarraikiz.

4. AZPIEGITURA: etxola eta mastaz, edo kasuan-kasuan dorre eta elektzitate, klimatizazio eta hesi sistema erantsiz osatutako obra zibila, telekomunikazio ekipoak instalatzeko euskarri izateko balio duena.

5. EKIPOAK: Telekomunikazio azpiegituretan instalatzen diren eta seinale erradioelektrikoak jaulki edo jasotzen dituzten parabolak, sektoreak eta bestelako elementu erradiatzaileak eta horien ekipamendu elektronikoak.

6. TELEKOMUNIKAZIO SAREAK: transmisio sistemak, eta bidezko denetan, konmutazio ekipoak eta bestelako bitartekoak, kable, bitarteko optiko nahiz bestelakoen bidez amaiera puntu definituen artean seinaleak transmititzen uzten dutenak, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko definizioari jarraikiz.

Zioak: Foru legean erabilitako zenbait terminoren esanahia ezartzea komeni da.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

38. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa

"Sarearen hedapenari buruzko lurralde plana" jartzen duen lekuan "Azpiegiturei buruzko lurralde plana".

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan proposatutako nomenklaturari egokitzea.

39. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa

Bigarrena. Lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Foru Administrazioaren organo eskudunak Erregistro Berezi bat sortuko du; hartan jasoko dira Foru Komunitateko irrati-komunikazio zerbitzuak emititzea xede duten azpiegiturak.

Zioak: Gehiegikeria da instalazio hartzaile guztiak jasotzea.

40. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa

Zioak: Ez da bideragarria administrazio bereko espediente bakarrean sartzea bi onespren prozedura, foru lege honetan ezarritako eta Jarduera sailkatuei buruzko foru legean ezarritakoa, areago kontuan izanda biek dutela helburu bera, alegia, azpiegitura instalazioa onestea.

41. ZUZENKETA

Bosgarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa

Komatxoaren artekoa aldatu eta ondokoa jarritzea: "Uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarriko estazioak eta haren elementuak eta ekipoak ezartzea eta funtzionatzea"

Zioak: Gure taldeak aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat, kontzeptuak argitu eta zehaztearren.

**XEDAPEN IRAGANKORREI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

42. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldi baterako bigarren xedapena aldatzeko zuzenketa

“1, 2, 3 eta 4. eranskinetan ezarritako erradiazio ez-ionizatzaile eta segurtasun distantzien gainekoak” kendu eta “foru lege honetako 5. artikuluan zehaztutako esposizio muga eta babes neurrien gainekoak”.

Zioak: Gure taldeak aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat.

43. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldi baterako bigarren xedapena aldatzeko zuzenketa

Dauden instalazioak egokitzeko epea urtebetera luzatzea, foru legeak indarra hartzen duenetik aitzina.

Zioak: Proposatutako epea ez da teknikoki aski.

**ERANSKINEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

44. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

1, 2, 3 eta 4. eranskinak kentzeko zuzenketa

Zioak: Gure taldeak aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat. Zuzenketa horietan esposizio mugei buruzko alternatiba arrazoizkoagoa ematen da. Ez dugu egoki ikusten segurtasun tartearik ezartzea, zeren proposatzen den alternatibak baditu potentzia dentsitatearen arabera erreferentzia mailak eta babes neurriak, mugatu egiten baitu langile ez profesionalen sarbidea erreferentzia mailaz goitiko tokietan, hala nola elementu erradiatzaileetatik hurbileneko eremu irekia, sarri askotan zabaltzetan egoten dena.

45. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

I. eranskina aldatzeko zuzenketa

3, 4, 5 eta 6. lerroak eta 2. taula kentzeko zuzenketa

(“Irrati sistemarako erreferentziako distantziak” jartzen duenetik hasi eta 2. taularaino)

Zioak: Erreferentziako distantzien taularen aplikazioa errepikakorra da, kontuan hartzen badugu 3. eranskinen paralelepipedo irudiko babes eremuari emandako definizioa.

Dagoenean mantentzeak interpretazio okerrak eragin ditzake. 3. eranskinaren aplikazioa garbia goa eta sinpleagoa da.

46. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

I. eranskinen 2. taula aldatzeko zuzenketa

900 Mhz frekuentziarako erreferentzia maila 2 w/m² izanen da (0,2 mw/cm²-ren baliokidea)

1.800 Mhz frekuentziarako erreferentzia maila 4 w/m² izanen da (0,4 mw/cm²-ren baliokidea)

2.000 Mhz frekuentziarako erreferentzia maila 4,5 w/m² izanen da (0,45 mw/cm²-ren baliokidea)

Zioak: Foru lege proposameneko emisioa altuegia da.

47. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

I. eranskinen definizioetako d) letra aldatzeko zuzenketa

Hauxe dio:

“(mW/cm²)”

Hauxe behar du:

“(microW/cm²)”

Zioak: Unitateak behar bezala adieraztea. “m” laburdura “mili”-rena da, ez “micro”-rena.

48. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. eranskina aldatzeko zuzenketa

II. eranskina

Telekomunikazio azpiegituren 100 metroko erradioan arretazko erabilerako lekutzat jotako espazioak egonez gero, azpiegituraren jabeak emisio erradioelektrikoko mailak zehazten dituen azterlan berariazkoa aurkeztuko du –kalkulua espazio horien gainean eginez–, kontuan hartuko dituena, gainera, espazio horietan lehendik zeuden emisio mailak. Azterlan horretan justifikatuko dira arretazko erabilerako leku edo espazio horietan esposizio mailak minimizatzeko hartu diren neurriak (altuera, orientazioa eta abar).

Debekatuta dago ikastetxeetan telefonia mugikorreko instalazioak jartzea.

Zioak: Proposatzen dugun zuzenketarekin, minimizatu egiten dira emisio erradioelektrikoak arretazko erabilerako lekuetan eta ikastetxeetatik desagerrarazten dira.

49. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Testu osoan aldatzeko zuzenketa

Testu osoan mW/cm^2 agertzen den guztietan aldatu eta mW/cm^2 jarriko da

Zioak: Antza denez, foru lege proposamenaren testuan munta handiko akatsa egin da. Ereku elektromagnetikoetako gehieneko esposizio atala-sea definitzerakoan, foru lege proposamenaren aldiro agertzen da mW/cm^2 , balore hori “zentimetro karratuko microwatio” delakoan. Nazioarteko erkidego zientifikoak darabilen nomenklator homologatuaren arabera, berriz, “micro” adierazteko erabiltzen den ikurra m letra grekoa da. Hortaz, mW/cm^2 “metro karratuko miliwatio” da, eta “ mW/cm^2 ”, aldiz, “zentimetro karratuko microwatio”. Potentzia dentsitate bera adierazteko dira $1 mW/m^2$ eta $0,1 mW/cm^2$.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****50. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

III. epigrafeko 4 eta 5. lerrokadak kentzeko zuzenketa

Zioak: Laugarren lerrokan ez da aintzat hartzen Espainian onetsita dagoela segurtasun mailak ezartzeko legeria, seguruena foru lege proposamena aurkeztu zenean legeria hori indarrean ez zegoelako. Bestalde, legeria murriztaileegiak bakarrik aipatzen dira.

Bosgarren lerrokadaren kasuan, gure taldeak aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin bat aurkeztu dugu zuzenketa.

51. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko III. ataleko hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa

Halaber, herritarren osasuna babesteko xedez, lege honek Europako Batasunak pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko 1999ko uztailaren 12ko Europako Batasunaren Kontseiluaren Gomendioan ezarritako betekizunak aldatzen ditu. Hori dela eta, lege honek esposizio publikoetarako onartzen dituen gehieneko mailak, emisioaren frekuentziaren arabera aldatzen direnak, bai eta telefonia mugikorreko oinarriko estazioak nahiz antena errepikatzaileak arretazko erabilerako lekuetan dauden eraikin gainetan instalatzeko debekuak ere, kontuan hartzen du arretazko erabilera behar duten lekuetan pertsonen kalte handiagoa egiten ahal zaiela. Ezarritako erreferentzia mailek bateragarri egin nahi dute irradi-komunikazioen instalazioen funtzionamendua eta herritarren behar bezala babestea eremu elektromagnetikoen esposiziotik, azpimarra berezia eginez instalazio horiek bete beharreko kontserbazio eta kontrol baldintzetan.

Zioak: Gure talde parlamentarioak lege proposamenari aurkeztutako zuzenketari egokitzea zioen azalpena.

52. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko I. ataleko 2. lerrokadan "irradi-komunikazioko azpiegiturak" kendu eta "uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarritzko estazioak" jartzea.

Zioak: Kontzeptu nahiz lege aldetik zehaztasun handiagoa lortzea. Kable edo uhin gidarien bidez zirkulatzen ez duten uhinak erradiatzen dituztenez ari dela ulertu behar da.

53. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko III. ataleko 3. lerrokada aldatzeko zuzenketa

Halaber, herritarren osasuna babesteko xedez, arretazko erabilerako lekuetan uhin elektromagnetikoetako esposizioa dela-eta irailaren 28ko Errege Dekretuak ezarritako erreferentzia mailak baino maila zorrotzagoak ezartzen ditu foru lege honek, leku horietan ohikoa baita gizakiak sarritan egotea. Ezarritako erreferentzia mailek bateragarri egin nahi dute irradi-komunikazioko instalazioen funtzionamendua eta herritarrak behar bezala babestea eremu elektromagnetikoen esposiziotik, azpimarra berezia eginez instalazio horiek bete beharreko kontserbazio eta kontrol baldintzetan.

Zioak: Kontuan hartzea 1066/2001 Errege Dekretuak indarra hartu izana, hori baita, 1999ko uztailaren 12an Ebko Kontseiluaren gomendioetan oinarrituta, lege erreferentzia Espainiarako. Testua bat etortzeko gure taldeak aurkeztutako beste zuzenketa batzuekin.

54. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko II. atala aldatzeko zuzenketa
Hauxe dio:

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua osasuna babesteko eskubidea eta botere publikoek osasun publikoa aurre neurrien bitartez antolatu eta zaintzeko betebeharra ezarri zituen. Hori da, beraz, legeen politikaren oinarrian egon behar

duen eta botere publiko guztien jarduketa gidatu behar duen printzipioa. Konstituzioaren 43. artikulua eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen agindua betez, eta kontuan hartuta, gainera, Europar Batasunaren gomendioak, Nafarroako Gobernuak uste du "guztiz beharrezkoa dela herritar guztiak babestea eremu elektromagnetikoen sortu eta osasunerako kaltegarri diren eraginetatik".

Hauxe behar du:

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua osasuna babesteko eskubidea eta botere publikoek osasun publikoa aurre neurrien bitartez antolatu eta zaintzeko betebeharra ezarri zituen. Hori da, beraz, legeen politikaren oinarrian egon behar duen eta botere publiko guztien jarduketa gidatu behar duen printzipioa.

Zioak: Kontraesana da esatea espresuki kontuan hartzen direla Europako Batasunaren gomendioak baina lege proposamenean ez aplikatzea Osasun Ministroen Kontseiluaren 1999ko uztailaren 12ko Gomendioa.

Gainera, gaur egun ez dago inolako ebidentzia zientifikorik esateko uhin elektromagnetikoak osasunerako kaltegarriak direla, eta hortaz, ez da egokia esatea "kaltegarri diren eraginetatik".

55. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko III. atala aldatzeko zuzenketa

Aurrekoarekin bat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1997ko ekainaren 30eko 97/33/CE zuzentzararen arabera, irradi-komunikazioko instalazioak batera erabiltzea onuragarria izan daiteke ingurumenaren gaineko eragina dela-eta. Horregatik, foru lege honen helburuen artean instalazioak batera erabiltzea dago, irradi-komunikazioetarako azpiegituren eragina minimizatzen, foru lege honetan ezarritako printzipioak garatzeko ezarritako, edo aurrerantzean ezartzen diren prozedurekin bat.

Lekuak batera erabiltzea neurri lagungarria da azpiegitura horiek eta ingurunea bateragarriak izateko, eta ordena gabe ezar daitezkeen galarazten du. Hori dela eta, lege honetan ordenamendurako tresna gisa planteatzen da, betiere eremu elektromagnetikoetarako esposizioari buruzko oinarritzko arauak errespetatuz eta eraginen metatzeak sorturiko egoerak ebaluatuz. Baterako erabilera helburu laudagarria da, baina horrek ezin du eragotzi

operadoreek euren jarduera garatu ahal izatea, ezta euren azpiegitura eta sareak lehia-araubidean eta aukera berdintasun eta lehiakortasun libreko printzipioekiko errespetuz (Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko 2 eta 3. artikulua) hedatzearen jabari publikoa edo ondare pribatua okupatzeko eskubidea ere.

Halaber, herritarren osasuna babesteko xedez, lege honek Europako Batasunak pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko 1999ko uztailaren 12ko Europako Batasunaren Kontseiluaren Gomendioan ezarritako betekizunak areagotzen ditu. Hori dela eta, lege honek esposizio publikoetarako onartzen dituen gehieneko mailak, emisioaren frekuentziaren arabera aldatzen direnak, kontuan hartzen du arretazko erabilera behar duten lekuetan pertsonen kalte handiagoa egiten ahal zaiela. Ezarritako erreferentzia mailek bateragarri egin nahi dute irrati-komunikazioko instalazioen funtzionamendua eta herritarrak behar bezala babestea eremu elektromagnetikoen esposiziotik, azpimarra berezia eginez instalazio horiek bete beharreko kontserbazio eta kontrol baldintzetan.

Gaur egungo egoeran, intentsitate baxuko eremu elektromagnetikoen esposizioak epe ertain eta luzean dauzkan ondorioei buruzko ikerketa epidemiologiko ugari egiten ari da. Hori dela eta, lege honetan zehaztutako printzipioa hartu behar da oinarri, hau da, segurtasun maila jakin batzuk ezarri beharko dira. Segurtasun maila horiek konpromiso bat izanen dira zientifikoki demostratu daitekeenaren eta hemen arauturiko instalazioetatik ondorioztatzen diren eremu elektromagnetikoen ustezko kaltegarritasuna demostra dezaketen balizko aurrerapen zientifikoek eskatzen duten zehaztasun tartearen artean.

Hori guztia dela eta, lege honek jasotzen dituen erreferentzia mailak Europako Batasuneko Osasun Ministroen Kontseiluak 1999ko uztailaren 12an eremu elektromagnetikoen menpe jendea oro har egoteari buruz emandako gomendioan oinarritzen dira. Horren kariaz, betekizunak areagotu eta gehieneko mugak erdira jaitea erabaki da.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak Osasun Publikoaren Institutuari Nafarroako lurraldean dauden telefonia mugikorrek instalazioek jaulkitako erradiazio elektromagnetikoari buruz eskatutako azterlana erreferentzia gisa hartuko da egiaz-tatzeko egungo telefonia mugikorrek oinarritzko estazioen kokapena eta haiek jaulkitako erradiazioa foru lege honetan arauturiko erreferentzia mailen arabera diren.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ikuspuntutik, Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua ezarri zuen herritar guztiek eskubidea dutela pertsonen garapenerako egokia den ingurumenaz gozatzeko, eta botere publikoek natur baliabide guztien erabilera arrazoizkoa zainduko dutela, bizi-kalitatea babestu eta hobetzeko. Halaber, Espainiako Konstituzioaren 149.1.23gn. artikulua ezarri zuen Estatuak duela ingurumena babestearen arloko oinarritzko legeak emateko eskumena, baina autonomia erkidegoek babes neurri gehigarriak ezarri ahal izanen dituztela. Aukera horri gehitu behar zaio 148.1.9gn. artikulua autonomia erkidegoei ematen dizkien eskumenak, hain zuzen ere ingurumena babesteko kudeaketari doazkionak, eta LORAFNaren 57. artikulua ezarritakoa -hain zuzen ere, Nafarroak, Estatuak oinarritzko legediaren barruan, eskumena izanen du ingurumenaren eta ekologiararen arloko lege garapena egiteko eta garapen hori betearazteko.

Aurrekoari jarraituz, lege honen xedea ingurumena babestea da, eta paisaiaren gaineko eraginari buruzko mugak ezartzen ditu, instalazio horien begi-eragina ahal den guztian mimitizatze-ra behartzen baitu. Horrekin guztiarekin, Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorrean (16.3 artikulua) eta Jabari Publiko Erradioelektrikoaren Erabilerrari buruzko Erregelamenduan (8. artikulua) horri buruz bildutako xedapenak osatu nahi dira; horien arabera, antena eta oinarritzko estazioak kokatzeko ingurumen arloko aplikatzeak diren xedapenak bete behar dira.

Azkenik, lege hau lurraldearen antolamenduen, hirigintzaren, osasunaren sustapen, prebentzio eta lehengoratzearen arloan eta ingurumena babestearen arloan Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 44, 53 eta 57. artikuluetan Foru Komunitateari esleitzen zaizkion eskumenen barruan ematen da.

Zioak: Foru lege batek ezin du Europako zuzentarau edo gomendio bat aldatu. Gehienez ere, haietan ezarritako betekizunak Foru Komunitatean areagotzea planteatu daiteke.

TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

56. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Titulua aldatzeko zuzenketa

Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazio-ko oinarriko estazioak antolatzeko foru lege proposamena

Zioak: Kontzeptu nahiz lege aldetik zehaztasun handiagoa lortzea. Kable edo uhin gidarien bidez zirkulatzen ez duten uhinak erradiatzen dituztenez ari dela ulertu behar da.

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ARTIKULU BAKARRARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko lehen idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

Bat. 18. artikuluari idatz-zati berri bat, hirugarrena, gehitzea. Testu hau izanen du:

3. Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan suhiltzaile-ofizial lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako A mailari atxikiko zaizkio.

Zioak: Uste dugu beharrezkoa dela sailkapena horrela egitea, suhiltzaileen kidegoko gainontzeko langileekiko diskriminaziorik egon ez dadin.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari 3. idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Hiru. Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan zaindari nagusi nahiz Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza

eta Ingurumen Departamentuko mendi zaindari lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako B mailari atxikiko zaizkio. Ingurumen zainari eta mendi zaindarioordeen lanpostu hutsak Funtzio Publikoan sartzeko oposizio bidez beteko dira.

Zaindari nagusien eta mendi zaindarien lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira, zeinean sartuko baita NAPIk emandako prestakuntza ikastaro bat. Ingurumen zainari eta mendi zaindarioorde izatera igotzen ahalko dira lanpostu horretan gutxienez ere bost urte eman dutenak. Unibertsitateko erdi nahiz goi mailako espezialitateko titulua edukiz gero, epe hori hiru urtera murriztuko da.

Lanpostuen eskuragarritasuna bermatuko zaie Ingurumen arloko landa langile guztiei, zeinahi ere diren; betiere, eskuratu nahi den lanpostuko antzinatek emanen zaio lehentasuna.

Zioak: Beste talde batzuk C mailan sartzeak berekin ekarri behar du beste langile talde batzuen erantzukizuneko lanpostuak indartzea, lanbide karrera egiteko aukera benetakoa izan dadin.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Hiru. 19. artikuluko testuaren aldaketa. Hona:

19. artikulua.

1.- Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan ingurumen zainari, mendi zaindarioorde, puerikultura-laguntzaile, puerikultura-klinikako laguntzaile nahiz SOS Nafarroako operadore lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako C mailari atxikiko zaizkio.

2.- Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan ingurumenzain nagusi, mendi zaindari nahiz SOS Nafarroako aretoko buru lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako B mailari atxikiko zaizkio.

Zioak: Uste dugu beharrezkoa dela sailkapena horrela egitea, gainontzeko langileekiko diskriminaziorik egon ez dadin.

4. ZUZENKETA

Batzarre

Artikulu bakarrari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Hiru. 19. artikuluko testuaren aldaketa. Hona:

19. artikulua.

Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan ingurumenzain nagusi nahiz mendi zaindari lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako B mailari atxikiko zaizkio.

Zioak: Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuko landa langileen administrazio karrera garatu nahi da. Landa langile guztiak aipatu legeak indarra haratzearekin batera C mailan sartzean, praktikan desagertu egin baita karrera.

Bestalde, ingurumenzain nagusi eta mendi zaindariak, oposizioaren arabera C mailakoak direnak, D mailatik C mailara eta B mailara igotzetik baztertuta gelditzeko bakarrak izan litezke.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari laugarren idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Laugarrena. Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan agintarientzako gidari nahiz korporazioko gidari lanpostuan lan kontratu finkoarekin diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako C mai-

lari atxikiko zaizkio. Sailkapen berri horrek berekin ekarriko du egun jasotzen dituzten lansari osagarrietan bidezko den xurgapena, eta ez du ekarriko langile horiek egun jasotzen dituzten lansari pertsonal oinarrizko eta osagarrietan zenbateko osoa ezer igotzea, graduari dagozkionak salbu.

Zioak: Agintarientzako gidariak aurreko negoziatioetan ere kanpo geratu ziren, eta hortaz, une egokia da haien birsailkapena aztertzeke eta D mailatik C mailara pasatzeko, kasuan-kasuan duten erantzukizunari eta azken urteotan gertatzen ari diren egoera bereziei jarraikiz.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari bosgarren idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Bosgarrena. Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan SOS Nafarroako operadore lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako C mailari atxikiko zaizkio, eta SOS Nafarroako Koordinazio Zentroko aretoko buru lanpostuan dihardutenak, berriz, B mailari. Sailkapen berri horrek berekin ekarriko du egun jasotzen dituzten lansari osagarrietan bidezko den xurgapena, eta ez du ekarriko langile horiek egun jasotzen dituzten lansari pertsonal oinarrizko eta osagarrietan zenbateko osoa ezer igotzea, graduari dagozkionak salbu.

Zioak: SOS Nafarroako operadoreen eta Koordinazio Zentroko aretoko buruen sailkapena osatzea; izan ere, D mailari dagozkionak baino gora-goko egitekoak dituzte eta 10 urte baino gehiago daramatzate suhiltzaileen eta foruzainen egitekoen antzekoak egiten, eta horiek sailkapenaren abantailak baliatuko dituzte.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari seigarren idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Seigarrena. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko agiritegian "harrobiko makinista" izenpean administrazio kudeaketako lana egiten duten

langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako C mailari atxikiko zaizkio, "administrari laguntzaile" izenpean.

Zioak: Bulegoburu batek eta harrobiko hiru makinistak osatzen dute Tributu Agentziako Agiritegi Bulegoko plantilla. Makinista horiek, orain dela 18 urte, euren borondatez onartu zuten Ekonomia eta Ogasun Departamentuari atxikitzea, euren lanpostua zereginik gabe geratu baitzen Nafarroako Foru Diputazioak harrobiak ustiatzeari utzi zionean. Egiten duten lana, ordea, ez dator bat harrobiko makinista batenarekin, hobeki lotzen baitzaio agiritegiko empletatu edo gisako batenari.

8. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Laugarrena. 6 bis artikulua gehitzea. Hona testua:

6 bis artikulua. Xedapen gehigarri bat gehitzea.

1.- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia osatzen duten funtzionarioei Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei buruzko xedapen orokorrak aplikatuko zaizkie, salbu eta hurrengo idatz-zatietan xedatutakoa.

2.- Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, betiere, ondoko lanpostuak izanen ditu:

– Ingurumenzain nagusi koordinatzailea eta mendi zaindari koordinatzailea: B maila.

– Ingurumenzain nagusiak eta mendi zaindariak: B maila.

– Ingurumenzainak eta mendi zaindarioak: C maila.

3.- Ingurumenzainen eta mendi zaindarioen lanpostu hutsak Funtzio Publikoan sartzeko oposizio bidez beteko dira. Oposizioan nahitaez sartuko da NAPIk emandako prestakuntza ikastaro bat. Ikastaroak iraun bitartean izangaiak praktiketako funtzionariotzat hartuko dira.

4.- Zaindari nagusien eta mendi zaindarien lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira, zeinean sartuko baita NAPIk emandako prestakuntza ikastaro bat. Igoera txandan inguru-

menzainek eta mendi zaindarioek parte hartu ahalko dute baldin eta lanpostu horretan gutxienez ere 5 urte eman badute. Unibertsitateko erdi nahiz goi mailako titulua edukiz gero, epe hori hiru urtera murriztuko da.

5.- Ingurumenzain nagusi koordinatzaile eta mendi zaindari koordinatzaile lanpostu hutsak mailaz igotzeko lehiaketa bidez beteko dira, ingurumenzain nagusien eta mendi zaindarien artean. Lehiaketan NAPIk emandako prestakuntza ikastaroa sartuko da. Mailaz igotzeko lehiaketan parte hartu ahal izateko nahitaezko baldintza izanen da ingurumenzain nagusi edo mendi zaindari lanpostuan hiru urteko zerbitzua eman dutela kreditatzea.

Zioak: Sailkapen berriak direnez, uste dugu beharrezkoa dela horien lanbide karrera modu berezian arautzea.

9. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

4. idatz-zatia gehitzea proposatzen dugu. Hona:

7. artikulua. Xedapen gehigarri bat gehitzea. Hona:

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, betiere, ondoko lanpostuak izanen ditu:

– Ingurumenzain nagusi koordinatzailea eta mendi zaindari koordinatzailea: B maila.

– Ingurumenzain nagusiak eta mendi zaindariak: B maila.

– Ingurumenzainak eta mendi zaindarioak: C maila.

Ingurumenzainen eta mendi zaindarioen lanpostu hutsak Funtzio Publikoan sartzeko oposizio bidez beteko dira. Oposizioan nahitaez sartuko da NAPIk emandako prestakuntza ikastaro bat. Ikastaroak iraun bitartean izangaiak praktiketako funtzionariotzat hartuko dira.

Zaindari nagusien eta mendi zaindarien lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira, zeinean sartuko baita NAPIk emandako prestakuntza ikastaro bat. Igoera txandan ingurumenzainek eta mendi zaindarioek parte hartu ahalko dute baldin eta lanpostu horretan gutxienez ere bost urte eman badute. Unibertsitateko erdi nahiz goi mailako titulua edukiz gero, epe hori hiru urtera murriztuko da.

Ingurumenzain nagusi koordinatzaile eta mendi zaindari koordinatzaile lanpostu hutsak mailaz igotzeko lehiaketa bidez beteko dira, ingurumenzain nagusien eta mendi zaindarien artean. Lehiaketan NAPIk emandako prestakuntza ikastaroa sartuko da. Mailaz igotzeko lehiaketan parte hartu ahal izateko, nahitaezko baldintza izanen da ingurumenzain nagusi edo mendi zaindari lanpostuan hiru urteko zerbitzua eman dutela kreditatzea.

Zioak: Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuko landa langileen administrazio karrera garatu nahi da. Landa langile guztiak aipatu legeak indarra haratzearekin batera C mailan sartzean, praktikan desagertu egin baita karrera.

Bestalde, ingurumenzain nagusi eta mendi zaindariak, oposizioaren arabera C mailakoak direnak, D mailatik C mailara eta B mailara igotzetik baztertuta gelditzeko bakarrak izan litezke.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra, bis, gehitzeko zuzenketa

Artikulu bakarra, bis:

1.- Udaltzaingorik ez duten toki entitateek albientearen lanpostu bat edo batzuk sartu ahal izanen dituzte plantilla organikoan, udaltzaingoen kidegoek dituzten eginkizun berberak bakarrik beteko dituen agente armaduna izateko, foru lege honen xedapenen menpean.

2.- 4.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateek, tokian tokiko funtzionarioek –armadunek zein armarik gabeek– egin ahalko dituzte, beste eginkizun batzuekin batera, eginkizun horiek.

Langile horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuari lotuko zaizkio. Langile horiek hautatu eta sartzeko prozeduran nahitaez jasoko da 30. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen den prestakuntza ikastaroa, eta hura nahitaez gainditu beharko da izendapena lortzeko.

Halere, delako toki entitateak erabakitzen badu bere plantilla organikoan albiente lanpostu bat edo batzuk sartzea, berezko eginkizunak bakarrik beteko dituen agente armaduna izateko, honen aurreko idatz-zatian xedatutakoa izanen da aplikatzekoa.

Zioak: Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legeko araubideak lortu nahi ez dituen ondorioak, hainbat toki entitatei kalte egiten ari zena, zuzentzea.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarrari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

Hiru. Laugarren xedapen iragankorra gehitzea. Hona testua:

Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epean gehienez ere, foru lege honek indarra hartzen duenean B mailako suhiltzaile-ofizial izendapena eduki eta egiaz emandako zerbitzuetan bost urteko antzinatasuna duten Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioentzako murriztutako oposizioa deituko du. Oposizio hori –NAPIk emandako prestakuntza ikastaroa sartuko da– gaindituz gero, funtzionario horiek A mailako suhiltzaile-ofizial gisa sailkatuta geratuko dira, eta B mailan zituzten lanpostuak kenduko dira. Oposizioa gainditzen ez badute, 6. artikuluan arautzen den egoerari geldituko dira.

Zioak: Bide bat ezartzea epe motzean konponzeko suhiltzaileen kidegoak izan lezakeen egoera atipikoa, ofizial batzuk A mailan eta beste batzuk B mailan egotean. Egungo ofizialei atea irekitzen zaie denbora gutxian A maila lortzeko, baina ez era automatikoan –horrek beste funtzionario batzuei ezarri ez zaien neurria ezartzea litzateke–, baizik eta merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatzen dituen oposizio prozedura berezi baten bitartez. Prozedura hori baliatuta birsailkapena lortu ondoren, normaltasunez egin ahal izanen dute 10/2001 Foru Legean jasotzen den lanbide karrera.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari ondoko testua gehitzeko zuzenketa

Ingurumen zaintzak, aldiz, administrazio-poliziaren eginkizunak betetzen ditu ingurumen arloan, eta herritarren aurrean agintari gisa azaltzen denez, uniforme jantzita egiten dute zerbitzua. Errondak eta zaindartzak osatzen dituzten taldeak ingurumen zain nagusien eta zaindarien agintaren eta arduraren menpe daude. Ingurumen zaintza Bulegoko arduraduna –haren menpe 50 ingurumen zain daude– C mailako ingurumen zain nagusia da, sarri askotan C mailaz gorako eginkizunak hartu eta konponbideak eman behar dituen. Hori dela-eta, dituzten eginkizun eta ardurei jarraikiz, uste dugu ingurumen zain nagusiak eta mendi zaindariak B mailan birsailkatu behar direla.

Horregatik sartu ditugu ingurumen zain nagusiak eta mendi zaindariak B mailan.

SOS Nafarroako operadoreek ere eskatu dute C mailan sartzea, suhiltzaileek eta foruzainek Koordinazio Aretokan dituzten eginkizun berberak dituzten arren orain arteko birsailkapenetatik bazter utzi dituztelako. SOS Nafarroako operadoreek, berriz, C mailaz goitiko eginkizunak dituzte, hala nola larrialdiko deiak hartzea, lehentasunak balioetsi, sailkatu eta esleitzea, gertakariaren nahiz istripuaren izaera identifikatzea, baliabide egokiak mobilizatzea eta abar.

Aretoko buruek ere izan behar dute Foruzaingoko eta Suhiltzaileen Kidegoko sarjentuen maila bera; izan ere, Koordinazioko Zentroko lehen arduradun diren aldetik, ondokoak ere egin behar dituzte: zentroaren jarduna gainbegiratu, langileen kudeaketa arloko eginkizunak bete, krisi egoerak kudeatu eta sistema informatikoa erabili. Horregatik jarri behar dira maila berean aretoko buruak eta Foruzaingoko eta Suhiltzaileen Kidegoko sarjentuak.

Agintarientzako gidariak ere geratu ziren aurreko negoziazioetatik kanpo, eta hortaz, birsailkapena aztertzeke eta D mailatik C mailara

pasatzeko, kasuan-kasuan duten erantzukizunari eta azken urteotan gertatzen ari diren egoera bereziei jarraikiz.

Beste alde batetik, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legearen ondoriozko disfuntzio batzuk ikusi ahal izan dira poliziaren eginkizunak bete baina polizia kidegorik ez duten albienteen kasuan. Horregatik planteatzen da Nafarroako Polizia Kidegoei 1/1987 Foru Legeko 12. artikulua antzeko testua, hartara Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legea onetsi aurretik zituzten administrazio eginkizunak betetzen jarraituko baitute albienteek.

Zioak: Errealitateari hobeki egokitzen zaion sailkapena planteatzen da; izan ere, talde horiek esleituak dituzte hainbat eginkizun eta ardura, eta horiek direla medio euren mailaz goitiko eginkizunak bete behar dituzte egunero.

TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

13. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea eta Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

Zioak: Gehitzeko zuzenketa gisa, legearen titulua proposatutakoari egokitzea.

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa".

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

Nafarroako Gobernuak Musikako goiko mailako lehen maila ezarriko du Nafarroan 2002-2003 ikasturtean, eta arian-arian, gainerako guztiak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legeak (LOGSEK) xedatuari jarraikiz.

Zioak: Pablo Sarasate kontserbatorioko ikasle eta irakasleen hobebetaz, ahalik eta arinen ezarri behar dira goi mailako ikasketak guztiak.

2. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Gure ustez, ez da beharrezkoa gai horretan aplikatzekoa den araudiaren aipamena egitea.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa

3. artikulua. Nafarroako Gobernuak 2002an ekinen dio "Pablo Sarasate" Goi Mailako Kontserbatorioa hartzeko instalazio berriak eraikitzeari, eskatu beharreko kalitateari eta hezkuntza inbertsioaren alorrean Nafarroan gizarteak dituen itxaropenei jarraikiz erdi mailako eta goi mailako musika ikasketak eman ahal izateko.

Zioak: Egungo kontserbatorioaren azpiegitura negargarriak hobetzeko alderdi bat zuzentzea. Garai batean Espainiako kontserbatoriorik modernoa izan zena negar egin eta lotsa emateko moduan dugu Nafarroan. Gure musika tradizioak eta maila sozioekonomikoak horien pareko kontserbatorioa eskatzen dute.

4. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehena kentzeko zuzenketa

Zioak: Ez dugu uste baimen hori beharrezkoa denik.

5. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa

"Guipúzcoa" dioen lekuan "Gipuzkoa" jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Izatasunezko Ezaugarriari buruzko martxoaren 27ko 6/1990 Foru Arauko lehen artikulua (G.A.O. 70 zbk.; 10-4; 2181 orri.) berariaz ezartzen du Lurralde Historikoaren izena GIPUZKOA euskal hitza dela.

Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak Nafarroan jartzeari buruzkoa".

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dit. Proposamen hori 2001eko irailaren 3ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikulua. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak helburu nagusi du pedagogia, konposizio, interpretazio eta ikerkuntza arloetako musikari profesional adituak prestatzea, musika klasikoaren, usadiozkoaren eta modernoaren alorretan euren lanbidea garatuko dutenak eta preskakuntza teknologiko, teoriko eta humanistiko handikoak.

Zioak: Helburuak ezartzea.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa

Artikulu berria. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortu da, Nafarroako Gobernuaren mende, "Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa" izenarekin.

Zioak: Ematen du logikoa dela helburu hori jasotzen duen artikulua izatea legean.

XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarra kentzeko zuzenketa

Zioak: Beste zuzenketekin bat.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, Musikako Goi Mailako musika ikasketen curriculum auzari eta haietan sartzeko probak arautuko ditu, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorri buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 4. artikuluan xedatuarekin bat.

Zioak: Gure errealitateari egokitutako garapenari laguntzea.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, kontserbatorioaren erregelamendu organikoa garatuko du –goi mailako ikasketa izaerari egokitu eta berezitasunei aurre egiteko beharrezkoak diren malgutasun eta espezifikotasuna ahalbidetuko duena–, ikastetxe horri antolamendu-esparru bat ematearren.

Zioak: Erkidegoaren errealitateari egokitzea.

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, musika eskoletan musika ikasketa arautuak egiteko probak prestatzeko programak ezartzen laguntzeko sistema berariazkoa ezarriko du, eta ezarpen-maila baxuko orkestra espezialitateei laguntzeko politikak sustatuko ditu.

Zioak: Goi mailako ikasketen bideragarritasuna ahalbidetzea, ikasle-fluxua sustatuz.

7. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, lankidetzaz hitzarmenak sustatuko ditu "Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren" eta talde-jarduerekin lotutako goi mailako musika ikasketei buruzko programak garatzeko gaitasun artistiko eta antolamenduzko nahiko duten tokiko musika-erakundeen artean.

Zioak: Taldeko ikasgaien bideragarritasuna ahalbidetzea (ganbera eta orkestra batez ere).

8. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Gobernuak 2002an hasiko ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren eraikina eta eskola-eremuko ekipamendu, egokimendu eta azpiegitura obrak hasteko trami-teak.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat.

9. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak "Pablo Sarasate" Kontserbatorioarekin erdi-banatu ahal izanen du horren egoitza, bi kontserbatorioen egoitza berriak eraikitzen diren bitartean.

Zioak: Goi mailako ikasketak hainbat arinen ezartzen laguntzea.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

Zuzendaritza talde berak zuzendu ahal izanen ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa eta "Pablo Sarasate" Kontserbatorioa egoitza berean dauden bitartean.

Zioak: Ezarpen prozesu horretan zehar toki mugatu batean koordinatu eta antolatzen laguntzea.

11. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapena gehitzeko zuzenketa

Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Zioak: Ematen du logikoa dela.

**TITULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****12. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Titulua aldatzeko zuzenketa

".. eta Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortzeko ..." gehitzea tituluari.

Zioak: Legearen helburua hori da.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

13. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko azken idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: Ez du ematen zioen azalpen batean egokia denik.

14. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenari, lehen lerrokadaren ondotik, honakoa gehitzeko zuzenketa

LOGSEko 38. artikulua ezartzen duenez, "ikasketa artistikoen helburua izanen da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea ikasleei eta etorkizunean musika, dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinuaren esparruetako profesionalak izanen direnen trebakuntza bermatzea".

Lege horren babesean, Nafarroan musika eskolen sarea eratu da. Batez ere udalenak dira eskola horiek, eta haietan bederatzi mila ikasle baino gehiagori ematen zaizkie musika ikasketak.

Zioak: Zioen azalpena osatzea.

15. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenari, "Apirilaren 15eko 389/1992 Errege Dekretuak..." baino lehen, honakoa gehitzeko zuzenketa

Hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 14ko 986/1991 Errege Dekretuko 28. artikulua ezartzen duenez –errege dekretu hori apirilaren 12ko 535/1993, uztailaren 1eko 1487/1994, otsailaren 16ko 173/1998, irailaren 19ko 1468/1997 eta ekainaren 25eko 1112/1999 errege dekretuen bidez aldatu zen–, "2000-2001 ikasturteik aitzina hasiko dira hezkuntza administrazioak oro har ezartzen egoki jotzen dituzten antolamendu berriko goi mailako ikasketak.

Zioak: Zioen azalpena osatzea.

16. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenari, "Apirilaren 15eko 389/1992 Errege Dekretuak..." eta gero, honakoa gehitzeko zuzenketa

16. artikuluan, berriz, goi mailako musika eskolek gutxienez ere eman beharreko espezialitateak ezartzen dira.

Azkenik, Goi mailako musika ikasketen curriculumeko oinarriko puntuak eta ikasketa horietan sartzeko hauta-probak arautzen dituen apirilaren 21eko 617/1995 Errege Dekretuak ezartzen duenez, ikasketa horietako espezialitateak eta hezkuntza administrazioen curriculumak garatzeko oinarriak ezartzen ditu.

Ikusita kasuko argumentu eta lege esparruak, bidezko da azpiegitura egokiak garatzen lagunduko duten arauak ematea, eta horregatik hain zuzen ere onetsi dugu foru lege hau.

Zioak: Zioen azalpena osatzea.

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 39,07 euro</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---